



www.alberdania.net | http://alberdania@alberdania.net

ALBERDANIA

Istillaga plaza 2, beheka C, 20304 Irun Tel: + 34 943 63 28 14

Zirtak su

I. Hasieran bazen hitza

Maite López Las Heras

Bilduma: Narrazioa (trilogia)

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 430

Koadernaketa: paperezko azala


Argitalpen data: 2026/02/18

ISBN: 978-84-9868-925-9

SALNEURRIA (BEZ gabe): 21,15 €

SALNEURRIA (BEZ barne): 22,00 €

EMAKUMEAREN AHOTSA HISTORIAN, EGERIA, ZENTSURA, TRILOGIA



Sinopsia

Zirtak su eleberri historikoa da, egiazko gertakizun batean oinarritua, egiazko pertsonaia bat protagonistatzat duena: Egeria, mendebaldeko lehen emakume bidaiaria eta idazlea. Guregana heldu diren testuetatik abiatuta, Maite López Las Herasek IV. mendeko emakumearen bidaia luzea kontatzen digu, Gallaeciatik Lur Santuraino. Ibilbidean zehar protagonistak biziko dituen gorabeherak ugariak eta erakargarriak izango dira, orduko testuinguru nahasi eta berezian kokatuak, Erromatar Inperioaren gainbeheran eta Kristautasunaren hastapenetan, hain zuzen.

Beste elementu bat tartekatuko da, ordea, kontakizun osoan zehar, liburuaren funtsa izango dena: zentsura. Erdi Aroko kopista desberdinen lana eta bizimodua ezagutu ahal izango ditugu, Egeriaren lanaren zein zati eta zein ez kopiau erabakiko dutenak, nolabait ere guregana heldu den testigantza zergatia azalduko digutenak.

Egileaz



Maite López Las Heras (Azkoitia, 1985)

Idazlea, poeta eta itzultzailea da. Filologia Klasikoa ikasi zuen. Literatura arloan, poesia sortzen du batez ere, baina ipuinak ere idazten ditu eta testu klasikoak euskaratzen ditu grezieratik eta latinetik. Lópezen poema bat Madrilgo zebra-bide batean ikus daiteke. Iritzi-artikuluak idazten ditu *Azkoitia Guka* aldizkarian eta *Elinberri* aldizkari digitalean, poema-liburuen erreseinak idazten ditu *Poesialeku* webgunean eta "Epeletan" irakurle-taldea zuzendu izan du hainbat urtez. Euskal Idazleen Elkarteko kide da. Hainbat ipuin lehiaketa irabazteaz gain, Euskadi Literatura Sarietako hautagaia izan zen *Safo, poesia guztia* (Balea zuria, 2020) liburuarekin itzulpenaren kategorian, zeina zuzenean eoliar dialektotik euskaratu zuen eta *Amatu* (Alberdania, 2022) liburuarekin Euskarazko Saiakera modalitatean. Berea da gainera, *Pienso luego escribo* (Círculo Rojo, 2018) eta euskarara ekarri ditu *Ibilbidea. Egeria* (Testu zaharrak, 2022), *Poetandreak* (Balea zuria, 2022) eta *Giorgos Seferis* (Susa, 2024). Eskuarte duzu *Zirtak su* trilogiaren lehen atala.